



OLENTZERO ETA MARI DOGIMINGIREN KALEJIRA

ZATOZ IKASTOLAREKIN PARTE HARTZERA

Abenduaren 24an Olentzero eta Mari domingiren kalejiran parte hartuko duen Ikastolako taldea antolatzen hasi gara. Edonork parte hartu ahal izango du, ikasleek zein familiako beste edonork. Hori bai, parte hartzeko izena eman beharko da.

Haur Hezkuntzako ikasleak pertsona heldu batekin batera parte hartu beharko dute, gainerako ikasleak berriz, Lehen Hezkuntzatik aurrerakoak, baka-rrik etor daitezke.

Izena emateko azken eguna abenduaren 13a izango da.

KRISEILUAK ETA SASKIAK

Kalejiran parte hartuko dugun guztiok kriseiluak (LH eta BHko ikasleek) eta saskiak (HHko ikasleek), otzarak, makilak edo bestelako apaingarriak (helduek) eramango ditugu kalejira girotzeko.



Norberak etxetik kriseilua zein saskia eraman dezake. Ikastolan bestela maileguan hartu ahal izango dira ikasleentzako kriseilu eta saskiak hurrengo egutegia baliatuta:

Abenduaren 16an 16:30etik 17:30era Ikastolako txokoan (lehengo atezainaren etxean) jaso.

Urtarrilaren 13an, 16:30etik 17:30era Ikastolako txokoan itzuli.

izena eman 

OLENTZERORENTZAKO ESKUTITZAK BERE LAGUNTZAILEARI EMATEKO JAIA

Laudio Ikastolako Kriskitin eus-kara taldeak Olentzeroren laguntzai-leari eskutitza emateko jai antolatu du **abenduaren 15erako**, igandea.

Haur Hezkuntzako jolastokian elkartuko gara danok **11:30ean**,

familian eta jai giroan ikazkinarekin goiz pasa egiteko.

Umeez lasaitasunez ikazkinari kon-tuak esan eta eskutitzak irakurtzen dituz-ten bitartean, gaztain erreak eta txistorra pintxoak jango dastatuko ditugu.